

Kattalin Zurutuza Eskisabel

E maila • 2 aipamena

Kaixo, ni Kattalin Zurutuza naiz eta Andramendi ikastolan ikasten dut. 10 urte dauzkat eta LH5eko gelan nago. Zaletasun asko ditut zaldiz ibiltzea, zirkoa, saxofoia, dantza... Baina eguna bukatzeko beti liburu bat izaten dut eskuetan irakurtzeko. Oso pozik nago bertsoan lortu dudan aipamenarekin, konfinatuta nengoela egin nituen. Ea gustatzen zaizkizuen.



Doinua: Badira hiru aste

ETXERATUTAKO BERTSOAK

Hogei egun pasa eman ditut
etxe barruan sartuta
lagunak ezin ikusi eta
haien aurpegik ahaztuta
aiton- amonen besarkadak e
faltan asko somatuta
Covida ez da ona izango
ta honek nauka goibelduta.

Koronabirusak jarria gaitu
planeta osoa airean
aberatsak ere erori dira
xomorro honen sarean
gutxiena duenak hala ere
gehio sufrituz barnean
baina ez dute atera txertorik
denok jartzeko parean.